

## Leioa eta bere herritarrak

## EKONOMIA

EDUARDO K.L. EARLE

Eduardo K.L. Earle "La Delta Española" fabrikaren bultzatzailea izan zen. Fabrika horri hainbat aldiz aldatu zioten izena ("Earle & Bourne", Sociedad de "Tubos y Metales" Earle Bourne & C<sup>o</sup> Ltd eta, geroago, "Eduardo K.L. Earle"). Fabrikak betiko markatu zituen Lamiakoren paisajea eta bizitza, eta, beraz, baita Leioarenak ere. Siderometalurgiako enpresa horrek, XIX. mendearen amaieran abian jarri zutenetik, hazkunde izugarria izan zuen, bai tamainan, baita langile-kopuruan ere.

Gizon horrek bere negozioak bide onetik joan zitezen begiratu zuen; baina, horretaz gain, irekia egon zen elkarrizketarako lan-istilu ugariko sasoi hartan, eta, aldi berean, langileen bizitzako baldintzak hobetzeaz arduratu zen. Etxeak altxatu zituen langileentzat, fabrikari bertan ekonomatu bat egin zuen, eta 1927an elkar laguntzeko montepio bat sortzea proposatu zien langileei. Lamiakoko gizarte-bizitzan ere gogotsu esku hartu zuen: laguntza ekonomikoa eman zuen eskolak aurrera egin zezan, egurrezko zutoinak ere utzi zituen nasapuntako entzutetsua itsas adarrean egiteko, eta futbol-taldeak sortzea bultzatu zuen –horien artean Sociedad Deportiva Leioa nabarmendu zen-.

1925eko martxoaren 16an Leioako seme ordeko izendatu zuten "*egindako merituengatik, eta gaur egungo Delta kaleari "Eduardo Earle jaunaren kalea" izendatzea erabaki zuten*".

MAXIMO AGIRRE

XIX. mendearen erdialdean, Maximo Agirre Ugarte merkatari eta industrialari bilbotarrak –Bilboko hiribilduaren alkate eta Estatu Batuetan kontsul izandakoak- lur-sail batzuk erosi zituen Getxoko eta Leioako elizateen arteko mugan, Gobela eta Udondo ibaiak bideratu zituen, eta padurak lehortzeari eta lurra finkatzeari ekin zion itsas pinua eta otea landatuz. Gaur egun Erromo eta Pinueta izenez ezagutzen den alderdia egokitu zuen, eta Areea urbanizatzen hasi zen. Handik gutxira, auzo hori gizarte-talde aberatsen turismo-alde eta egoitza-gune garrantzitsu bilakatu zen, itsas bainuak hartzeko modaren ondorioz.

Erandion eta Leioan lur-sail gehiago erosi zituen, ibar osoan era berean jokatzeko; eta 1860an beste herri bat egitea proposatu zuen, Baños de Lamiako izena izango zuena. Azkenean, ez zen horrelakorik egin, baina nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi bat sortu zuen. 1863an hil zen, eta, horren ostean, "*Viuda de Maximo Aguirre e Hijos*" sozietatea sortu zuten. Sozietate hori Lamiakok izandako aldaketaren sustatzaile handiena izan zen. Bere semeek, Eduardo eta Ezequiel Agirrek, etxaldea kirol-gune bilakatu zuten. Hor, sasoi batean, hipodromo bat eta hainbat futbol-zelai, uso-tiro eta polo-zelai izan ziren. Beste zati batean, industriak jarri zituzten, industriaren bultzatzaile sutsuak izan ziren-eta.

XX. mendearen hasieran, bere izena duen kalea sortu zuten. Bere familia ere garrantzi handia izan zuen Leioan: suhia, Eduardo Coste eta Vildósola jauna, 1902an Lamiakoko konde bilakatu zen. Auzo horretako parrokia, San Maximo, 1907an altxatu zuten, *Enrique de Aguirre eta Sobrinos*-ek utzitako lur-sailetan, eta izen hori ipini zioten gizon horren omenez; izan ere, garrantzi bizia izan zuen ordu arte landa-girokoa izandako elizate hori errotik alda zedin.

## FILANTROPIA

### *JOSÉ RAMÓN AKETXE ETA AGIRREMOTA*

1871ko ekainean, José Ramón de Aketxe eta Agirremota jaunak eta José Antonio de Ondiz jaunak eskatuta, Ondiz-Aketxe Fundazioaren Patronatua sortu zuten, umeen irakaskuntza dohainekoa izan zedin. Handik denbora gutxira, José Ramón de Aresti obretako maisuaren zuzendaritzapean, oinplano berriko etxe bat altxatu zuten, umeentzako eskola eta maisu-maistren gelak ipintzeko. Elexaldeko eskolak egin ostean, Udaletxean zegoen eskola zaharra kendu egin zuten. Fundazioak berak maisu-maistrei ordaintzea aurreikusita zuen, baina ez zegoen nahikoa dirurik; eta Aketxek, Patronatuko Batzarreko buruak, bereak ziren 65.000 errealek eskaini zituen.

1872an Leioako hilerria zabaltzen hasi ziren, bere ekimenez. Horren gomutan, oroitarri bat ipini zuten hilerriaren sarreran; orain, San Juan elizako gangan dago.

1891n gaur egungo Udaletxea altxatzea erabaki zuten. Aurrekoa 1865ean eraikia zen, bere babesean, eta 1881ean eraberritua. Aketxe bera arduratu zen obra berria ikuskatzeaz. 1874an testamentua egin zuen; horren legatuari esker San Juan elizako kanpandorra konpondu zuten. Testamentu horrexetan beste legatu bat utzi zuen Leioako lander hutsentzat, hain zuzen, 10.000 pezeta. Sasoi hartan Leioaren alde hainbeste lan egin zuenez, 1924ko azaroaren 15ean, Elexaldeko plazari José Ramón Aketxe jaunaren plaza izena ipini zioten.

### *LUIS BILBAO LÍBANO DOKTOREA*

Leioan jaio zen 1902ko azaroaren 28an. Bilbon Batxilergoa amaitu ostean, Madrilgo Medikuntzako Fakultatean ikasketak egin zituen 1920 eta 1927 bitartean. Urte horretan Basurtuko Ospitale Zibileko laborategiko medikurako oposizioa irabazi zuen. Prestakuntza osatze aldera, atzerrian izan zen; eta ospitale horretan abian hasi zen eta Osakidetza euskal osasun zerbitzua egituratu zuen Medikuntzako Fakultatean irakasle izan zen.

Bilbao Libanok eta bestek osatu zuten euskal medikuen belaunaldiari gaur egungo historiako gertaerarik tragikoenetako bat bizitzea suertatu zitzaion. 1936an piztu zen Gerra Zibila (urte horretan, Jesús María de Leizaolak, sortu berria zen Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Kultura sailburuak, Euskal Unibertsitatea eratu zuen, baterako sortzailea izan zen-eta), eta, ondorioz, Ipar Euskal Herrira jo behar izan zuen, gaixoak eta zaurituak eroateko lanak antolatzen eta Ipar Euskal Herrian, Frantzia eta Katalunian klinika- eta ospitale-sare izugarri bat sortzen jardun zuten beste lagun askok legez. Gogotsu aritu zen lanean, gerrako mutilatuz arduratu zen eta erbesteratutako umeen lehen belaunaldiari harrera egin zion.

Geroago, 1941ean, Pasteur Institutuko laguntzaile-lanetan Dakarren egonaldi labur bat izan ondoren, Venezuelara jo zuen. Han, Elkar Sorosteko Euskal Elkarte sortu zuen, eta Euzkadiko Gobernuaren ordezkaria izan zen Caracasen, 1948 eta 1950 bitartean.

Medikuntzako eta politikako karrera egiten zuen aldi berean, letretan ere jardun zuen; idazkietan, -horietako asko "leiotar" goitizenez izenpetuta daude-, sarritan, Leioaz zituen gomutak berritu zituen.

Trantsizioaren ostean, EHUk Honoris Causa doktore izendatu zuen; eta 1992ko irailaren 12an, Leioako Udalak hartutako erabakiaren ondorioz, Udalerriko kalerik garrantzitsuenetako bati bere izena eman zioten, bere ibilera pertsonal eta lan-ibilbidearen omenez.



## LITERATURA

### ANTONIO DE TRUEBA

Montellanon (Galdamesen) jaio zen 1819an. Behe-mailako familia batekoa zen. Txikitan Sopuertan jardun zuen beharrea, soroetan eta burdina-betak garraiatzen. 15 urte zituela, gurasoek Madrilera bidali zuten, karlistek errekruta ez zezaten. Han, 10 urte igaro zituen. Osabaren burdinolan beharrea ziharduen bitartean, bere burua prestatzen ibili zen, bere kabuz; eta literaturari ekin zion. Lehen arrakasta El Libro de los Cantares izan zen, 1851ean argitaratutakoa. Liburu horretan, *"La labradora de Ondiz"* poema eta *"El Canto de Lamia"* kontaketak daude, biak Leioan girotutakoak. Azken kontaketa horretan Lamiaren kantaren herri-kondaira batu zuen; mitologiako pertsonaia hori da, hain zuzen, Lamiako auzoari izena eman ziona.

1862an Bizkaiko Batzar Nagusiek Jaurreriko agirizain eta kronikari izendatu zuten. 1873 arte Bizkaian bizi izan zen; urte horretan Madrilera itzuli behar izan zuen atzera berriro. Bigarren Karlistada piztu ostean, itzuli zen eta Probintziako aita izendatu zuten.

Trueba, kontraera errazean idatzitako ipuinei eta kantei esker, sasoi hartako Bizkaiko idazlerik garrantzitsuenen izenaren izendatzailea izan zen. 1889an hil zen. Mariano Benlliure eskultoreak egin zuen bere estatua, eta batzuetan inspirazio-iturri izan zuen Elizateak ordaindu zuen, zati batean; Bizkaiko hiribilduko Albia lorategietan dago 1895etik.

## KIROLAK

### FÉLIX SESUMAGA ETA SABINO BILBAO

Félix Sesumagak Getxoko Arenas taldean jokatu zuen 1915 eta 1920 bitartean. Gehienbat 1919an nabarmendu zen; izan ere, urte horretan taldeak Bartzelonari garaitu zion 5-2 emaitzaz, eta, horrela, Kopako txapelketa irabazi zuen lehengo eta azken aldiz. Bikain jardun zuenez, Bartzelonak hurrengo denboraldirako fitxatu zuen. Espainiako selekzioarekin Anberesko Olinpiadan esku hartu zuen; eta, hortik aurrera, nazioarteko zortzi partidutan jokatu, eta golak sartu zituen.

Goiz hil zen arren, sasoi hartako aldizkariak jaso egin zuten bere ibilbide bikainaren berri:

*"Anberesko Olinpiadan izan dugun jokalaririk handiena Leioan jaio zen eta Félix Sesumaga du izena. Getxoko Arenas taldeak jokalaria bikainak eman dizkio gure futbolari; eta bera da baliotsuenetakoa bat. Bartzelonak fitxatu zuen, Arenas taldeak Espainiako Kopako finalean hamaikako horri garaitu ostean. Gero, Athletic-en hamaikakoan izan zen, harik eta lesio larri baten ondorioz, euskal kirolaren historiako pertsonaia handi honek futbol-zelaiak utzi behar izan zituen arte. Atzerriko kritikariak "txut" edo jaurtiketaren erregetzat jo zuten jokalaria ahaztezin hau. San Mamesko zelaitik Estatuko hamaikakora igaro zen, eta zortzi aldiz Sesumagaren lan bikainak harri eta zur utzi zituen herri askotako ikusleak. Lagunek eta zaleek partidu bat jokatu zuten bere omenez; horrekin amaitu zen Sesumagaren ibilera laburra baina bikaina, ezin zelako suspertu izandako lesio larri horretatik (...)"*

Sabino Bilbao, Luis Bilbao Libano doktorearen anaia, Sesumagarekin batera izan zen Espainiako selekzioan, Anberesko Olinpiadan, Suediaren eta Italiaren aurka jokaturako partiduetan. *"Euskal lehoien erdilari saiatua"* esaten zioten. Hainbat denboralditan bigarren mailako taldeetan jokatu zuen, Athletic-era iritsi zen arte. Talde horrek txapelketa asko irabazi zituen hamaikako honekin: Vidal, Rousse eta Acedo, Sabino Larraza eta Legarreta, Germán, Laca, Travieso, Carmelo eta Chirri.

## HERRIKO PERTSONA OSPETSUAK

### ARLOTE

Peru Arloteagabeitia (Arlote) honela jantzi ohi zen: txapela, praka marradunak, brusa beltza eta euritakoa besapean. Euskal baserriar tipikoa zen: inozoa baina apur bat mesfidatia, ezjakina, zakarra eta ondo hornitutako mahaiaren zalea. Euskal esapidez betetako gaztelaniaz, hainbat pasadizo kontatzen zituen, eta berehala sortzen zen barre-argara entzuten zeudenen artean.

Arlote Leioako baserri batean bizi zen. Emaztea Mari Pepa Ernegateko zen –noizbait ezkondu zen harekin, 20 urte baino gehiago ezkongaietan ibilitakoan-, eta dendatxo bat zuen Leioan. Gaztetan itsasgizona izan zen, eta, zenbait urtetan, San Juan parrokiako etxezaina. Pasadizo askotan Leioa eta bere auzoak azaltzen dira handik edo hemendik: Ondiz, Aketxe, Elexalde, Udondo, Lamiako, Peruri, San Bartolome, Sarriena, etab. Baita tokirik ezagunetako batzuk –Petraren taberna- eta hurbileko herriak ere (Areeta, Algorta, Martiartuko San Antonioren dorrea eta basiliza, Landa, Erandio, Asua...).

Alberto San Cristóbal eta Jesús Basáñez izan ziren asmakizunezko pertsona hau, lehenengoz, egiazko pertsonaia bilakatu zutenak; lehenbizi, Areetako gizarte-etxean, eta, gero, irratian eta antzokietan. Berez zuen dohainari esker, barrea eragiten zuten pasadizoetarako pertsonarik egokiena zen.

Egiakoa izan zein ez izan, Arlote Leioako San Juan jaietako ikur bilakatu da.

### GREGORIO GANA ETA JOSÉ PAROLA

1960eko hamarkadan, San Juanen aurreko aste batzuk lehenago, gazteak alaitzen hasten ziren, jaiak noiz iritsiko irrikaz zeudelako. Jaien aurreko egun horietan, jantzi merkeen lehiaketak antolatzen zituzten eta karrozak egiten zituzten. Orduan, arrunt-arrunta zen Gregorio Gana, -Gorin izengoitia zuena- bere karrakarekin ikustea, *Petra alargunaren* tabernaren aurrean. Ospetsua zen egiten zituen keinuengatik; sarritan irabazi zituen itsusien txapelketak, batzuk Estatu mailakoak gainera. "Frankenstein" ere oso entzutetsua izan zen (Erandiokoa zen). Horiekin lehiari ibiltzen zen José Parola Astegia, "Drakula" goitizenez ezaguna zena. Gorinekin hasi zen jarduera horietan eta Bizkaiko txapelketetan lehen itsusia izan zen. Biak, hala Gorin nola Parola, guztiz ezagunak eta maitatuak ziren Leioan, eta leioatarrak dibertitu zituzten urte askotan.